Proiektu honetan Wavelet transformatuan oinarritutako QRS segmentatzeko algoritmoa erabiliko da; beraz algoritmo osoaren azalpena egingo da nahiz eta proiektu honetan T eta P uhinak ez aztertu. Transformatu honek seinalearen denbora eremu ezaugarriak ematen ditu, erresoluzio desberdinen bidez banatuz. Arrazoi honegatik EKG seinaleetan erabilgarria izan daiteke; seinale hauen ezaugarriak maiztasun desberdinetan kokatzen direlako. Era berean, zarata beste maiztasun batean aurkitzen denez desberdindu daiteke.


Talde honek proposatutako QRS detektagailua 4 ataletan garatu egin da:

### 1. QRS konplexua hautematea:

Hasteko QRS konplexua detektatzeko Li eta bere taldeak proposatutako multi-eskala algoritmo batean oinarritzen da [17], aurreko atalean adierazitakoa. Funtzio honekin R markak lortzen dira, transformatuaren osteko energia eskala erabiliz eta atalase maila batean oinarrituta maximotik minimorako aldaketa suertatzen direnean R unea markatu egiten da. Hala ere, Juan Pablo Martinez eta bere taldeak zenbait aldaketak egin dituzte: QRS uhinaren detekzioa ez da R puntuaren menpekoa izango; beraz uhin negatiboak detektatu daitezke ( eskalan minimotik maximorako aldaketak onartzen dira). Hortaz, uhin formak indibidualki aztertzen dira, anplitudeetan bakarrik oinarrituz.

Hurrengo irudian eskalen arteko desberdintasunak erakusten dira, lehenengo zati honetarako lehenengo zutabea (R wave) kontuan izan da, R puntua eskalan minimotik maximorako edo maximotik minimorako *zero crossing*-a izanik:





Irudia 5: EKG uhinen simulazioa Wavelet transformatuaren eskala desberdinetan

## 2. QRSaren delineazioa:


Detektoreak emandako posizioen arabera bi aldeetara seinu kontrako bi maximo egon behar dira, hau da negatibo-positibo edo positibo-negatibo bikote bat eskalan; aurreko irudiko hirugarren lerroan ikus daitekeen moduan. Hauek lortuta aurreko eta atzeko atalase baten arabera balio absolutuko maximoak bilatuko dira. Era berean, bi puntu hauen artean dagoen eskalako zero balioko posizioa uhin gailurra izango da; hau da R unea. Azkenik, onset (Q) eta offset (S) puntuak lortzeko QRS konplexuaren detekzioa erabiltzen da; izan ere, bi puntu hauek QRS konplexuaren malda adierazlean daude. Hortaz, QRS konplexutik hurbilen dauden laginak izango dira Q eta S puntuak.

Esan beharra dago algoritmo hau nahiz eta aurrekoan oinarrituz markaketa irizpide desberdina erabiltzen duela Q eta S unek adierazteko. Honetan R puntu osteko minimoak Q eta S puntuak dira, lehenengo lerroan eta bigarren zutabeetan ikus daitekeen moduan. Aurrekoan ordez, bi puntu hauek ez dira minimoetan ematen, baizik eta minimo eta *base line*-aren artean dagoen maldan kokatu egin dira.

## 3. T uhinaren hautematea eta delineazioa:

Hasteko leihuetan oinarritutako azterketa egin da, QRS eta R-R tartetean oinarrituz. Leiho hauetan atalase balio baten menpeko maximo absolutuak lortuko dira eskalan (irudiko hirugarren zutabea). Maximo absolutu bikote bakoitzeko T uhina detektatu da, non zero balioa lortzen duenean uhinaren gailurra den.


Maximo hauen seinua erabakitzeko seinalearen T uhinaren forma kontuan izan behar da; izan ere 6 motatako T uhinak aztertu daitezke. energia eskalan T uhina lortzen ez bada eskalan egingo da prozesu bera.



Irudia 6: T uhin formak : (a) uhin positiboa (b) uhin negatiboa (c) uhin bifasikoa (d) uhin gorakorra (e) uhin beherakorra (f) maila baxuko S/N uhina

#### 4. P uhinaren hautematea eta delineazioa:

T uhinaren prozedura bera jarraitzen da kasu honetan hartu beharreko leihoa eta atalase balioak P uhinari egokituz. Gainera, P uhinaren kasuan 3 mota bakarrik desberdintzen dira:



Irudia 7: P uhin formak: (a) uhin positiboa (b) uhin negatiboa (c) uhin gabeko EKGa

Esan beharra dago bi algoritmo hauek erritmo egonkorrentzat diseinatu zirela, non pazienteak hemodinamikoki egonkorra den minutu eta orduetan. Aldiz, BBGaren kasuan erritmoak oso ezegonkorak dira, eta segundo gutxiko tartean mantentzen da. Laburbilduz, atal honetan proposatutako bi algoritmoak denbora luzerako eta erritmo egonkorrentzako diseinatu egin dira; hortaz, proiektu honekin kontrako kasuak lortu nahi dira, denbora laburreko BBGko erritmo irregularrak eta aberranteak segmentatzea.

## 6. Aukeren analisia

### 6.1. Deskribapen orokorra

Proiektu honekin ebatzi beharreko arazoa BGGko erritmo organizatuekin zehatza den denbora laburreko seinaleak segmentatzeko algoritmoa da. Helburura iristeko interfazeak garatuko dira: datu base, algoritmo eta emaitzen analisirako interfazeak. Beraz, software garapena beharrezkoa da, seinaleak prozesatzeko eta manipulatzeko.

### 6.2. Aukerak

Softwarea garatzeko programazio ingurune desberdinak aurkitu daitezke; beraz, atal honetan aukera desberdinak aztertuko dira, haien abantailak eta desabantailak kontuan izakin.

- C programazio lengoaia

Alde batetik, abantailetan oinarrituz, C programazio lengoaia oso garatuta dagoen lengoaia da, ia edozein algoritmo inplementatu daiteke ingurune honen bitartez. Gainera, office elementuekin lan egiteko kapaza da.

Beste alde batetik, desabantailak aztertuz, C lengoaia ez dago objektuetara orientatuta; hau da, erabiltzailea eta programa elkarri eragitea saihesten da. Bestalde, ezin da erabiltzaile interfaze grafikoaren (GUI) bidezko inplementaziorik garatu.

- Objektuetara zuzendutako programazioa (Java/C++)

Abantailekin hasteko, ingurune hau objektuetara zuzendutako programazio da; beraz, edozein inplementazio garatzeko kapaza da. Ingurune nagusienak Java eta C++ dira, biek GUI garapenak egin daitezke.

Desabantailen artean, seinaleen irudiak sortzeko zailtasuna da, nahiz eta seinaleen balioak arrai batean kokatu.

- Matlab programazio lengoiaia

Abantailen artean, seinaleen informazioa manipulatzeko erraztasuna da. Bestalde, matematika eragiketak egiteko funtzioak garatuta daude eta algoritmoak sortzeko erraztasuna beste lengoaietan bezalakoa da.

Azkenik, desabantailen artean GUI tresnaren garapena da, Java edo C++ baino garapen maila txikiagoa dauka, hau da, lortuko daitezkeen ikusizko emaitzak ez dira objektuetara zuzendutako programazio lengoaien bezain hobeak.

### 6.3. Hautaketa irizpideak

Irizpide nagusia tresna erabiltzeko zailtasunean oinarritzen da, erraz manipulatu behar da baina datuen informazioa galdu gabe. Beraz, garatu beharreko tresnak seinaleei buruzko informazioa ondo islatu behar du. Gainera, proiektu onen oinarritzko materiala EKG seinaleak dira, hau da, seinaleekin lan egiteko kapaza izan behar da.

Laburbilduz hautaketa irizpideak interfazearen erabilera erraza eta intuitiboa eta seinaleen prozesaketa erraztasunak dira.

### 6.4. Ebazpidearen aukera

Proiektuaren helburu den algoritmoa garatzeko lehen azaldutako programazio lengoaien artean aukeratu behar da. Aurreko ataleko irizpideak jarraituz Matlab ingurunea aukeratu da. Lan honen garapena GUI eta seinaleen bidez gauzatuko da; beraz, Matlab da bi ezaugarri hauek batzeko kapaza den ingurunea. C programazio lengoaiaren bidez ezin da GUI bat landu eta Java edo C++ inguruneak erabiliz seinale kudeaketaren zailtasun maila igoko da.

## 7. Arriskuaren analisia

Lanaren atal honetan proiektuaren garapenean gerta daitezkeen arriskuak azterketa egingo da. Hauek hasiera batean aurreikusi egin dira.

Arriskuaren motaren arabera; hau da, gertatzeko probabilitatearen eta proiektuan izan dezakeen eraginaren arabera lehentasun maila desberdinetan sailkatuko dira. Gainera hauek ekiditeko kontingentzia planak egin dira. Aipatutako ezaugarri guztiak hurrengo ataletan aurkezten dira.

### 7.1. Datuen galera (A)

Erabili beharreko tresna ordenagailua da, bertan seinaleak eta garatu beharreko inguruneak sortu eta gordeko dira. Beraz, hauek galtzearen arazoa izateko probabilitate txikia izan arren proiektuan eragin handia izango luke.

Arrisku hau ekiditeko proiektuko atal desberdinen kopiak egingo dira gailu desberdinetan gordez.

### 7.2. Atzerapenak (B)

Proiektuaren denbora planifikazioa betetzen ez denean ematen da. Arazo hau gertatzeko probabilitatea handia da eta eragina baxua dauka. Lana bakarka egiten denez denbora errekeratzea erraza da, lan planera iritsiz.

Arrisku hau ekiditeko proiektuaren planifikazioa malgutasunarekin sortu egingo da, lanaren atal bakoitzean eman beharreko denborari ordu gehiago batuz, ezustekoen aurrean erreakzio denbora izateko.

### 7.3. Arazo teknikoak garatutako tresnarekin (C)

Lanaren helbururako garatu beharreko inguruneek arazoak sortu ahal dituzte, gehienbat kode erroreak dira arrisku honen arazo nagusiak. Arrisku honen gertatze-probabilitatea handia da eta proiektuan izan ahal duen eragina handia da, proiektuaren helburua ez betetzeko arriskua izanik.

Kontingentzia plan moduan kodearen probak izango dira; hau da, zati txikitan banatuta inguruneen funtzionamendu zuzena egiaztatuko da. Ingurunearen atalen bat sortzean probak egingo dira erroreren bat egotekotan konponbidea emanez.

## 7.4. Tresnen prozesatze astuna (D)

Garatutako algoritmoak prozesatze astunegiak izatekotan arazoak sortu ditzake, hau da, prozesaketak denbora asko eraman dezake atzerapenak sortuz. Gertatzeko probabilitatea ertaina da baina eragin baxua dauka.

Arrisku hau ekiditeko bi kontingentzia plan egon daitezke: itxaroten den bitartean denbora beste gauza batean aprobe txatu edo tresna ahalik eta efizienteen egin.

## 7.5. Langileen bajak (E)

Planifikazioan atzerapenak sortu dezakeen arriskua da; izan ere, lantaldeko kideren batek baja hartzekotan bere lana denbora batez bertan behera geratuko litzateke. Arazo hau gertatzeko probabilitatea baxua izan arren eragina handia izango litzateke.

Arazo honi aurre egiteko bi irtenbide eman daitezke. Alde batetik, lan taldean ezagutza maila bereko bi pertsona egotea izango litzateke, bat baja hartzekotan besteak bere lana egiteko kapaza izango litzateke. Beste alde batetik, lanaren plangintza egoera berrira moldatu.

## 7.6. Datu-base txiroa (F)

Algoritmo bat sortzerako orduan ahalik eta proba gehien egitea komeni da, ezaugarri desberdinez osatutako seinaleekin ematen diren emaitzak ebaluatzeke. Seinale gutxi izatekotan posiblea da algoritmoaren emaitzak zuzenak izatea, arazoak eman dezaketen seinaleak datu-basean gordeta ez daudelako. Arrisku hau gertatzeko probabilitatea txikia da baina eragina ertaina da.

Arrisku honen kontingentzia plana datu-base sorreran aplikatuko da, seinaleak mota desberdinekoak izan behar dira, ezaugarri desberdinak izanez eta mota bakoitzeko seinale bat baino gehiago sartuz.

## 7.7. Arrisku analisiaren laburpena

Arrisku hauek probabilitate-eragin matrize batean sailkatuko dira arazoaren inpaktuaren arabera lehentasunak identifikatzeko.


		ERAGINA				
		Oso Baxua (0.05)	Baxua (0.1)	Moderatua (0.2)	Altua (0.4)	Oso altua (0.8)
PROBABILITATEA	Arraroa (0.1)			<b>F</b>	<b>E</b>	<b>A</b>
	Nezekoa (0.3)					
	Posiblea (0.5)	<b>D</b>				
	Gerta daitekeena (0.7)		<b>B</b>		<b>C</b>	
	Ia ziurra (0.9)					

Taula 1: Probabilitate-eragin matrizea



## 8. Irtenbidearen diseinua

Proiektuaren helburua lortzeko jarraitu beharreko faseak ondorengo eskeman azaltzen dira:



*Irudia 8: Irtenbide diseinuaren eskema*

Hasteko MRx gailuetan erregistratutako episodioak hartu dira non 1561 episodioetatik ROSC/noROSC bereizketa egin den. Bereizketa horren ondoren episodio desberdinetan 5 segundoko mozketak egin dira bi datu-base desberdin lortuz PR eta PEA; lehenengoak pultsua errekueratu duten episodioetako mozketak gordetzen ditu (ROSC); bigarrenak berriz, pultsua errekueratu ez dutenak (noROSC). Beraz, azkeneko datu-baseak 2372 PR eta 1542 PEA mozketaz osatuta daude, 279 episodio desberdin izanik.

Pazienteen informazioa eskuraturik seinaleen prozesaketa hasi da, Matlab ingurunea erabili da proiektuaren kudeaketarako. Datu-basearekin lan egiteko GUI bat sortu da, bertan paziente guztien EKG mozketak bistaratu ahal izateko, horrela lanaren hurrengo atalantzako oinarrizko seinaleak hautatu ahal izan dira. Hasieran 2372 PR eta 1542 PEA mozketaz osatutako datu-baseetatik aukeraketa egin da 83 PR eta 91 PEA mozketako fitxategiak lortuz; hauek izan dira momentu honetatik aurrera erabiliko diren seinaleak. Gainera ingurune honekin datu-baseko seinale bakoitzean taupada bakoitzeko EKG segmentazioa egin daiteke, non Q R eta S uneen arteko segmentuak bereizi diren, hauek erreferentzia modura erabili dira garatuko diren algoritmoentzat. Beraz, datu-base

eguneratu bi sortu dira, PR eta PEA datu-base eguneratuak, non QRS segmentazioa gordeta egongo den.

Ondoren, beste GUI bat garatu da algoritmoen aplikazioa eta garapena kudeatzeko. Ingurune honetan aukeratutako seinaleak eta segmentazioak bistaratuko dira. Bestalde, erritmo egonkorreko QRS segmentazio algoritmoa aplikatu daiteke, PR eta PEA erritmoekin zehaztasun maila neurtuko da aurreko ingurunean markatutako Q, R eta S puntuekin, geroago garatuko den algoritmoarentzat erreferentzia izanik. Aplikatu den funtzioa Juan Pablo Martinez eta bere taldeak proposatutako algoritmoa izango da [9].

Denbora laburreko QRS segmentazio algoritmoa sortzeko gailua aurreko interfaze bera izan da. Funtzio hau Wavelet transformatuaren (SWT) bidez sortu da, iragazkiaren seinale forma, iragazki kopurua eta emandako koefizienteetan oinarritu da; honen arabera QRS segmentazioa eginik. Gainera GUI berean sortutako algoritmoaren zehaztasun maila neurtu da metrika ezaugarri desberdinen laguntzaz. Parametro hauek QR, RS eta QS distantzia, uhin luzera eta uhin azalera izan dira. Bi algoritmoen bost metrika hauen zehaztasun maila datu-base batean gorde dira emaitzen analisia kudeatu ahal izateko.

Azkenik, emaitzen analisi estatistikoa egin da, horretarako datu-baseko mozketako QRS uhinaren metrika desberdinen analisia eta PR/PEA seinale sailkapena egin da. Lehenengoan grafikoaren bidez metrika bakoitzeko eta erabilitako algoritmoaren arabera errore absolutua eta erlatiboa irudikatu dira konparazioa erraztatzeko asmoz. Seinale sailkapena egiteko QRS iraupena, uhin luzera eta uhin azaleraren arabera erroregresio lineal batez mozketako seinalearen erritmo diagnostikoa egin da

## 9. Metodologia

Txostenaren atal honetan proiektuaren fase desberdinen deskribapena egingo da, erabilitako metodo teknikoak eta tresnak aztertuz.

### 9.1. Datu-basearen garapena

Proiektuan erabili den informazioa Philips HeartStart MRx desfribiladoreek bildutako 1561 episodioko datuak dira, non EKG eta BI 1015 episodioetan dauden. Hauek EKGak 250 Hz-ko laginketa maiztasunarekin eta 1.03  $\mu$ V-ko erresoluzioarekin gordetzen dituzte. *DFW Center of Research (UTSW, Dallas)* agentziatik bidalitakoak dira, Txaseko Unibertsitateari lotuta dagoena.

Hasteko ROSC eta noROSC sailkapena egin da; hau da, pultsua errekuperatu duen edo ez jakitea, geroago egingo den sailkapenerako lagungarria izan dena. Bi ezaugarri kontuan izan dira episodioak aukeratzekoan. Alde batetik, pultsua errekuperatzekotan (ROSC) ezinbestekoa da honen ostean sakadak edo desfibriladorearen erabilerarik ez egotea. Beste alde batetik, noROSC taldeko seinaleak hildako pazienteenak izan dira.

Beraz, bi datu-base garatu egin dira PR eta PEA, non ROSC episiotatik PR sortu den eta noROSC-etatik PEA. Guztiak 5 segundoko mozketak izango dira. PR episodiooko 30 segundoko distantzia minimoa utzi da mozketetarako eta PEA mozketetan segundo batekoa. Ortaz, gutira 279 episodioko datu-baseak lortu dira, 3914 mozketak guztira, 2372 PR eta 1542 PEA.


Hortaz, bi datu-base hauek data\_PR eta data\_PEA egiturez sortuta daude zeinak hurrengo eremuko informazioa gordeko dute:

- Bereizketa egiteko mozketako identifikazio izen desberdina. Hala ere, paziente desberdinak ere desberdindu dira identifikazio zenbaki batekin.
- EKG eta laginketa maiztasunaren inguruko informazioa.
- Erritmo sailkapena, mozketak datu-base batean edo bestean dagoen arabera.
- QRS markaketa/segmentazioko denbora uneak, eskuz nahiz algoritmoak erabiliz.

## 9.2. Datu-basea kudeatzeko tresna

Tresna honek datu-baseetako seinaleak aztertzeko sortu izan da, hain zuzen PR eta PEA datu-baseetako mozketen EKGak kudeatzeko. MATLABen ingurune honen bitartez 2372 PR eta 1542 PEA EKG, lehenengo eta bigarren deribatuak bistaratu daitezke R unek identifikatuta izanik, horretarako erabili den algoritmoa BBGarentzat bereziki garatutako algoritmoa da [16]. Beraz, aurreko guztia lagungarria izanik Q eta S puntuak eskuz markatuko dira; hala ere hasieran oinarriko markaketa bat izateko R unearen bi aldeetara lehenengo maximo edo minimoak markatzen dira; R unea maximoa izatekotan lehenengo minimoak markatuko dira; ostera, R minimoa izatekotan maximoak markatuko dira. Markaketa hau lerro bertikalen bitartez EKGaren irudikapenean egingo da, Q kolore berdez, beltzez R eta S gorriz.

Eskuz egindako markaketa irispideak G.W. Skejeflo eta bere kideek egindako artikulutik hartu egin dira [18]. Hauen iritziz QRS zabalera R uhinaren oinarriko inflexio puntutik ST segmentuaren hasieraraino definituta dago. Hala ere, QRS eta ST segmentuen arteko desberdinketa garbirik gabeko kasuak eman daitezke; hortaz kasu horietan T uhinaren hasierako base-linea hartu da S puntu gisa. Hurrengo bi adibideetan S marka irizpidearen desberdinketa ikus daiteke:



*Irudia 9: S unearen irizpide desberdinak*

### 9.2.1. Zehaztapenak


Azpiatal honetan tresnaren funtzionalitate desberdinak azalduko dira, datu-basearen kudeaketan interfazearekin egin daitezkeen ekintzak azalduz.

- BI *Radiobutton* bitartez erregistro mota aukeratu daiteke, aztertu nahi den seinalea PR edo PEA den aukeratzeko.
- Menu irristakor baten bitartez bistaratu nahi den mozketaren aukeraketa egingo da. Gainera bi aldeetara zuzendutako gezien bitartez aurreko edo hurrengo erregistroa aukeratu ahal izango da.
- Move botoiaren laguntzaz aukeratutako lerro bertikala nahi den tokira mugituko da.
- Marka bat gehitzeko + botoia erabiliko da aukeratutako lekuan jarritz.
- Markak ezabatzekotan – botoia erabiliko da aukeratutako marka kenduz.
- Geroagoko azterketarako erabiliko diren mozketak aukeratzeko Valid erabiliko da, hautatuta izatekotan datu-base eguneratu batean gordetzen dira.
- Irudikapenaren azterketa sakon bat egitekotan SPAM parametroaren bitartez zoom-a egingo da. Gainera EKG grafikoaren beheko aldean dauden gezien bitartez seinalearen denbora tarteak aldatuko da.
- QRS markaketa aldaketak deuseztatzeko bi botoi daude, bata azkeneko mugimendua bertan behera usteko (Cancel last movement) eta besteak seinaleari egindako aldaketa guztiak baliogabetzeko (Cancel this signal changes).
- Markak definituta datu-base mozketako egitura hurrengoak izango da:

```
reg_name: 'DAL 263360 CA-6'  
fs_ecg: 250  
s_ecg: [1250×1 double]  
fs_pci: 200  
s_pci: [1×1000 double]  
rhythm: 1  
ini: 1.8161e+03  
fin: 1.8211e+03  
ID: 1  
patID: 1  
revised: 1  
valid: 1  
Rpuntuak: [0.3040 0.9440 1.5880 2.2320 2.8720 3.5080 4.1440 4.7920]  
Qpuntuak: [0.2680 0.9040 1.5520 2.1920 2.8360 3.4680 4.1080 4.7520]  
Spuntuak: [0.3320 0.9720 1.6160 2.2560 2.9000 3.5360 4.1720 4.8160]
```

*Irudia 10: Datu-baseetan sortutako eremu berriak QRS segmentazioa adierazteko*


Hurrengo irudian tresnaren formatua ikus daiteke:



Irudia 11: Datu-basea kudeatzeko tresna

## 9.2.2. Funtzionamendua

Jarraian tresnaren funtzionamendua azaltzen duen fluxu diagrama aurkezten da, jarraitu beharreko faseak adieraziz.



Irudia 12: Fluxu diagrama: Datu-basea kudeatzeko tresnaren funtzionamendua

## 9.3. Erritmo erregularreko algoritmoa aplikatzeko tresna

Tresna honek algoritmoen QRS segmentazioa aztertzeke sortu izan da, hain zuzen erritmo egonkorrentzat garatu eta argitaratu den algoritmoa eta SWTrekin sortutako algoritmoaren azterketarako. MATLABen ingurune honen bitartez 83 PR eta 91 PEA EKG aztertuko dira, Wavedet edo SWT aplikatuz. Wavedet aplikatzerakoan hiru irudikapen desberdin egongo dira: lehenengoa EKG *gold standard* markaketarekin, bigarren grafikoan lehenengo eta bigarren deribatuak R markarekin eta azkenik EKG seinalea Wavedet segmentazioarekin. SWT aplikatzekeotan irudikapenak hurrengoak dira: lehenengoa EKG *gold standard* markaketarekin, bigarrenean SWT hurbilketarekin eta hirugarrenak SWT zehaztasun mailarekin. Azken bi hauek QRS markaketa berezi bat izango dute R marka errespetatuz. Hurbilketarako R unearen bi aldeetako maximo eta minimoak kalkulatu dira, R maximoa bada Q eta S hurbileneko minimoak izango dira; ostera, R minimo bat izatekotan Q eta S ondoko maximoak izango dira. Zehaztasunaren kasuan R unea *zero crossing* batean egongo da non bi aldeetarako hurrengo *zero crossing-ak* Q eta S puntuak izango diren. Gainera, konparaketa egiteko taula barneratuta dauka, bertan *gold standard* eta algoritmoen segmentazio desberdinketa ikus daiteke eta bi hauek, algoritmoen segmentazioa eta erroreak, datu-baseetan gorde daitezke.

Aurreko guztia kontuan izanik oso irregularrak eta aberranteak diren erritmo organizatuak SWTrekin implementatutako algoritmoa sortzeko lagungarria izango delakoan sortu egin da

### 9.3.1. Zehaztapenak

Jarraian tresnaren funtzionalitate desberdinak azalduko dira, interfaze honekin egin daitezkeen ekintza desberdinak azalduz.

- Bi *Radiobutton* bitartez erregistro mota aukeratu daiteke, aztertu nahi den seinalea PR edo PEA den aukeratzeko.
- Menu irristakor baten bitartez bistaratu nahi den mozketaren aukeraketa egingo da. Gainera bi aldeetara zuzendutako gezien bitartez aurreko edo hurrengo erregistroa aukeratu ahal izango da.
- Irudikapenaren azterketa sakon bat egitekotan SPAM parametroaren bitartez zoom-a egingo da. Gainera EKG grafikoaren beheko aldean dauden gezien bitartez seinalearen denbora tartea aldatuko da.

- Algoritmoa aukeratzeko bi *Radiobutton*.
- SWT konfigurazioa aukeratzeko taula.
- SCORES taula, *gold standard* eta algoritmoen segmentazio errorea adierazten duena.
- Data base botoia, algoritmoen QRS segmentazio markak datu-basean gordetzeko eta erroreen datu-basea sortzeko ebaluaketa estatistikoa errazteko.
- Algoritmoen markak definituta datu-base mozketako egitura hurrengoa izango da:

```

reg_name: 'DAL 263360 CA-6'
fs_ecg: 250
s_ecg: [1250x1 double]
fs_pci: 200
s_pci: [1x1000 double]
rhythm: 1
ini: 1.8161e+03
fin: 1.8211e+03
ID: 1
patID: 1
revised: 1
valid: 1
Rpuntuak: [0.3040 0.9440 1.5880 2.2320 2.8720 3.5080 4.1440 4.7920]
Qpuntuak: [0.2680 0.9040 1.5520 2.1920 2.8360 3.4680 4.1080 4.7520]
Spuntuak: [0.3320 0.9720 1.6160 2.2560 2.9000 3.5360 4.1720 4.8160]
Q_WAVEDET: [0.9080 1.5520 2.1920 2.8360 3.4720 4.1080]
R_WAVEDET: [0.3000 0.9400 1.5840 2.2280 2.8680 3.5040 4.1400 4.7880]
S_WAVEDET: [0.9760 1.6160 2.2600 2.9040 3.5360 4.1760]
Q_SWT: [0.2680 0.9080 1.5520 2.1920 2.8360 3.4720 4.1080 4.7560]
R_SWT: [0.3040 0.9440 1.5880 2.2320 2.8720 3.5080 4.1440 4.7920]
S_SWT: [0.3280 0.9680 1.6120 2.2520 2.8960 3.5320 4.1680 4.8160]

```

Irudia 13: Datu-baseetan sortutako eremu berriak algoritmoen QRS segmentazioa adierazteko



- Erroreen datu-basea hurrengo egitura dauka:


```

name: 'DAL 263360 CA-6'
qe_WAVEDET: 4.0000
qrel_WAVEDET: 14.1805
se_WAVEDET: 8.0000
srel_WAVEDET: 24.1993
QS_WAVEDET: 4.0000
QSrel_WAVEDET: 6.0662
CL_WAVEDET: 0.0450
CLrel_WAVEDET: 0.1542
A_WAVEDET: 4.4260
Arel_WAVEDET: 1.2782
qe_SWT: 8.0000
qrel_SWT: 16.8508
se_SWT: 10.0000
srel_SWT: 19.6721
QS_SWT: 12.0000
QSrel_SWT: 18.7500
CL_SWT: 0.2155
CLrel_SWT: 0.0135
A_SWT: 9.7460
Arel_SWT: 2.5505

```

*Irudia 14: Errore datu-baseen egitura*


Hurrengo irudian tresnaren formatua ikus daiteke:



*Irudia 15: Erritmo erregularreko algoritmoa aplikatzeko tresna*

### 9.3.2. Funtzionamendua

Azpiatal honetan tresnaren funtzionamendurako fase desberdinak azaltzen dituen fluxu diagrama aurkezten da.



*Irudia 16: Fluxu diagrama: Erritmo erregularreko algoritmoak aztertzeko tresna*

### 9.4. Denbora laburreko QRS segmentatzeko algoritmoaren garapena

Ondoren azalduko den algoritmoaren helburua erritmo erregularren (PR eta PEA) EKGak segmentatzea da. Bi seinale mota hauen arteko desberdintasun nagusia QRS konplexuan dago, PEA erritmoa PR erritmoekin alderatuz QRS oso berezi eta aldakorak dituzte, QRS segmentuaren zabalera handiagoa izanik.

### 9.4.1. Stationary Wavelet transform


Algoritmoarekin hasi aurretik Stationary Wavelet transformatuaren azalpena egingo da. Era orokor batean azalduz Stationary Wavelet transformatua oinarritzko funtzioen deskonposizio bat da non hurrengo formularekin definitzen den.

$$W_a f(b) = \int_{-\infty}^{\infty} f(t) \varphi_{s,T}(t) dt$$

$\varphi_{s,T}(t)$  funtzioak “Wavelet mother” izeneko funtzioen translazioa (b) eta eskala (a) aldaketaren arabera dira:


$$\varphi_{s,T}(t) = \frac{1}{\sqrt{a}} \varphi\left(\frac{t-b}{a}\right), a > 0$$

$\varphi_{s,T}(t)$  funtzioak “Wavelet mother” berdinetik sortuak izan badira eskala (a) eta kokaleku (b) desberdina izan arren forma bera dute. Bestalde, maiztasunekin lan egiterako orduan kontuan izan beharreko parametroa eskala da; maiztasun txikietan a handia erabiltzen da ( $\varphi_{s,T}(t)$  eskala handia) eta maiztasun handietan a txikia ( $\varphi_{s,T}(t)$  eskala txikia) [9, 19]. Hurrengo irudian “Wavelet mother” adibidea ematen da, zehazki *Daubechies* taldea:



Irudia 17: *Daubechies* Wavelet mother

Stationary Wavelet transformatu jarraian oztipo nagusia koefizienteen independentzia eza da, deskonposizio ez ortogonal izatera bultzatuz. Honi soluzioa emateko a eta b diskretu bihurtzen dira, normalean  $a=2$  izaten da, era honetan banda pase iragazki multzo baten bezala definitu daiteke, Mallat-en algoritmoari eutsiz [20].




Irudia 18: Iragazki multzoa

Seinale gehienetan maiztasun baxuko osagaiek seinalearen informazio gehiago ematen dute; hortaz, maiztasun altuko osagaiek ezaugarri bereizgarriei erreferentzia ematen die. Horregatik seinalea bi aldagaietan bereizten da:

- Hurbiltasuna (maiztasun baxuak).
- Zehaztasuna (maiztasun altuak).

Beraz, bi hauek banatzeko iragazkiak erabiltzen dira, behe pase eta goi paseak. Laburbilduz, Wavelet transformatua gauzatzeko hurrengo iragazkiaren eskeman oinarrituko behar da [21].




Irudia 19: Wavelet iragazki multzoa

Eskema hau aztertuz ondorioztatu daiteke iragazkiaren maila handituz gero hartuko den maiztasun mailaren zatia txikiagoa izango dela eta beti zehaztasunaren irteera tarte horren maiztasun altuak hartuko dituela.

## 9.4.2. Eskema orokorra

Denbora laburreko QRS segmentazio algoritmoa garatu baino lehen seinaleetan Wavedet algoritmoa aplikatu egin da. Honen ebaluaketa egin ostean oinarri moduan hau hartu da proiektu honen algoritmoa sortzeko. Hurrengo irudian denbora laburreko algoritmoaren eskema orokorra aurkezten da:




Irudia 20: Denbora laburreko algoritmoaren eskema orokorra

Hasteko seinaleari SWT aplikatzen zaio zeinak konfigurazio baten beharra daukan; konfigurazio honetan transformatuaren irteerako iragazki mota eta maila aukeratu behar dira. Era berean irteerako hurbiltasun (approach) eta zehaztasun (detail) seinaleen deskonposizio maila aukeratu behar da, horretarako QRS konplexuaren maila bakoitzeko forma aztertu behar izan da.

Transformatuaren ostean irteerako bi seinaleak banaka aztertzen dira oinarrizko QRS segmentazio bat aplikatuz eta R puntuak mantenduz. Hurbiltasunaren kasuan R unearen ondoko maximo edo minimoak hartuko dira Q eta S gisa, R maximoa izatekotan hurbileko minimoak hartuko dira eta R minimoa bada hurbileko bi maximoak. Hala ere, maximo edo minimo hauek zehaztean R unearikiko denbora tarte eta anplitude bat errespetatu egiten da.

Zehaztasunaren kasuan R unea doitu beharra dago hurbileko *zero crossing*-era. Kasu honetan ez dira hurbileko minimo eta maximoak bilatuko, lehenengo *zero crossing*-ak hartuko dira Q eta S puntu bezala. Aurrekoan bezala R unearikiko denbora tarte bat

errespetatu egin da. Hurrengo irudian hurbiltasuna eta zehaztasunaren markaketa adibidea ematen da bi irteera hauen eskala izanik.



Irudia 21: SWT hurbiltasuna eta zehaztasunaren QRS markaketa

Beraz, bi seinaleen Q eta S puntuak lorturik azkeneko puntuak zehazteko hauen doiketa egiten da; Q puntuak zehaztasuneko markaketarekin geratzen dira baina S markak ajustatu behar dira. Fase honetan hurbiltasun seinalearen segmentazioa oinarritzat hartuko da, azterketarako S puntuetan seinalearen anplitudea kontuan izango da, hala ere R unearen anplitudea ere kontuan izango da pulstu ahulak dituzten EKGak desberdinduz. Hauen arabera bi prozedura jarraitu daitezke:

1. Zehaztasunean lortutako markaketa jarraitu.
2. Hurbiltasuneko seinalearen S osteko *zero crossing*-ak hartu.

### 9.4.3. Algoritmoaren optimizazioa


Algoritmoaren optimizazioa lortzeko parametroei ausazko balioak eman zaizkie, era honetan PR eta PEA segmentatzean *gold standard*-arekin konparatu dira erroreak aztertuz. Beraz; lan honekin parametro egokienak aukeratu egin dira.

Azterketarako erabilitako parametroak eta balio posibleak hurrengoak izan dira:


- “*Wavelet mother*” familia ( Daubechies 1, Coiflets 1, Symlets 1, Fejer-Korvkin filter 4)
- “*Wavelet mother*” familiako (Daubechies 1 – Daubechies 15)
- a (1:1:5): Hurbiltasunaren maila, azterketarako seinalearen maiztasun osagaien banda.
- d (1:1:5): Zehaztasunaren maila, azterketarako seinalearen maiztasun osagaien banda.
- S<sub>anp</sub> (0.2-1): anplitude handiko R puntuen EKGGetako hurbiltasunaren S marken anplitudea (R>1 mV).

- $S_{\text{anp}}(0.1-0.5)$ : amplitude txikiko R puntuen EKGetako hurbiltasunaren S marken amplitudea ( $R < 1 \text{ mV}$ ).


Hurrengo irudietan QS luzerako errorean parametro hauen eragina irudikatu egin da:




*Irudia 22: QS errorearen mediana Wavelet mother desberdinekin*




*Irudia 23: QS errorearen mediana db familian*



Irudia 26: QS errorearen mediana zurbiltasun mailaren arabera




Irudia 25: QS errorearen mediana zehaztasun mailaren arabera



Irudia 24: QS errore mediana zurbiltasun S markaren anplitudearen menpe ( $R > 1$ )





Irudia 27: QS errore mediana hurbiltasun S markaren anplitudearen menpe ( $R < 1$ )

Beraz aurreko frogak egin ostean hurrengoak ondorioztatu da:

- Fejer-Korvkin filter 4 da emaitza onenak ematen dituen aukera; hala ere optimizazio sakon bat egin ostean Daubechies 1 konfigurazioak emaitzak hobeak emango ditu EKG metrikan.
- Daubechies 1 izango da transformatuaren “Wavelet mother”-a
- Hurbiltasun maila bat izango da; beraz, maiztasun banda 0-125 Hz-koa izango da.
- Emaitzak aztertuz zehaztasun maila 2 izateak QS errore txikiagoa ematen du; hala ere azterketa sakon bat eginik eta beste metrikak aztertuz zehaztasun maila 1 izateak segmentazio hobea ematen du. Maiztasun banda 125-250 Hz-koa izango da.
- R uneko anplitude handietan hartutako S anplitude muga 0.7 mV izango dira, emaitza hobeak ematen dituen. Beraz; sortuko den baldintza  $S > 0.7$  izango da.
- Pulstu ahuletan ( $R < 1\text{mV}$ ) 0.35 mV-ekoa izango da S anplitudearen muga, nahiz eta QS errorearen metrikan 0.4 mV-eko mugak emaitzak hobeagoak eman beste metrikek 0.35 mV-eko izatera behartzen dute. Hortaz; sortuko den baldintza  $S > 0.7$  izango da.

Hartutako aukerak hurrengoak dira:

Wavelet mother	Daubechies maila	Hurbiltasun maila	Zehaztasun maila	S_anp ( $R > 1$ )	S_anp ( $R < 1$ )
Daubechies	Db1	1	1	0.7	0.35


Taula 2: Algoritmo optimizazioaren emaitzak

## 9.5. Emaitzak

Emaitzak aztertzerako orduan bi kasu aztertu dira; lehenengoan algoritmoen QRS metrika *gold standard*-arekin konparatu da eta bigarrean bi algoritmoen markaketak PR edo PEA erritmoak sailkatzeko gaitasuna neurtu da. Emaitza guztien irudikapen grafikoa II. Eranskinean azaldu dira.

### 9.5.1. QRS metriken ebaluazioa

Ebaluazio hau gauzatzeko hainbat metrika kontuan izan dira: QR, RS eta QS luzerak, *curve length* eta azalera.



Irudia 28: QRS metrikak

#### 9.5.1.1. Emaitzen fidagarritasun metrika

Emaitzak aztertzeko bi irudikapen mota erabili dira:

- Barra diagramak: mozketako metrika ebaluazioko parametro guztien errore absolutu eta erlatiboak eta haien pertzentilak irudikatu dira. Errore guztien kalkulurako datu-baseko *gold standard*-a erabili da.
- Boxplot-ak: Lau multzotan sailkatuz, algoritmoaren eta EKG erritmoaren arabera, errore metrika bakoitzeko erroreen pertzentilak irudikatzeko erabiltzen den tresna da; hau da, 25, 50 (mediana) eta 75-eko pertzentilen irudikapena.

9.5.1.2. *Emaitza orokorrak*

Azpiatal honetan algoritmoen inguruko erroreen balioak aurkeztuko dira:

QR errorea	Pr 25 (ms)	Mediana (ms)	Pr 75 (ms)
Wavedet PR	6,5	12	18
SWT PR	6,24	8	8
Wavedet PEA	8	12	23,74
SWT PEA	4	4,86	8

*Taula 3: QR erroreen emaitzak*

RS errorea	Pr 25 (ms)	Mediana (ms)	Pr 75 (ms)
Wavedet PR	8	30	50,51
SWT PR	8	11,71	23,69
Wavedet PEA	21,53	54,29	104
SWT PEA	7,64	10,29	25,71

*Taula 4: RS erroreen emaitzak*

QS errorea	Pr 25 (ms)	Mediana (ms)	Pr 75 (ms)
Wavedet PR	10,21	29,24	62,46
SWT PR	4	12	28,74
Wavedet PEA	18,86	53,14	103,86
SWT PEA	4,17	11,43	26,26

*Taula 5: QS erroreen emaitzak*

<i>Curve length</i> errorea	Pr 25 (mV)	Mediana (mV)	Pr 75 (mV)
Wavedet PR	0,25	0,54	1,33
SWT PR	0,15	0,36	0,89
Wavedet PEA	0,29	1,08	2,28
SWT PEA	0,12	0,2	0,46

*Taula 6: Curve length erroreen emaitzak*

Azalera errorea	Pr 25 (mV*ms)	Mediana (mV*ms)	Pr 75 (mV*ms)
Wavedet PR	6,72	21,89	48,08
SWT PR	4,87	12,82	22,43
Wavedet PEA	10,11	38,12	98,54
SWT PEA	2,75	5,75	12,61

*Taula 7: Azalera erroreen emaitzak*

Aurreko emaitza taulak aztertuz denbora laburreko algoritmoa Wavedet-a baino errore txikiagoa ematen duela ondorioztatu daiteke. Era berean, espero den bezala, PR kasuetan algoritmoen arteko errore desberdinketa txikia da PEA erritmoekin konparatuz, izan ere, Wavedet algoritmoa erritmo erregularrentzako sortua izan da.

Bestalde aipatu beharra dago Wavedet algoritmoak ez duela G.W. Skejeflo eta bere kideen artikuluan aipatutako markaketa oinarritzat [18]. Izan ere, oraindik ez dago segmentazioa zehazten duen artikulatu ofizialik argitaratu, gehienbat PEA motatako seinaleetan.

## 9.5.2. PR eta PEA seinaleen sailkapena

Sailkapena burutzeko erregresio logistikoa erabili da QS distantzia, *curve length* eta azalera parametroak hartuz.

### 9.5.2.1. Emaitzen fidagarritasun metrika

Lehen aipatu bezala erregresio lineal baten bidez lortuko da non 100 aldiz iteratu den emaitzak lortzeko. Honekin bi ehuneko lortu dira: sentikortasuna eta espezifikotasuna. Lehenengoak PR seinaleak detektatzeko gaitasuna adierazten du; bigarrenak berriz, PEA seinaleen detekzio gaitasuna. Emaitzak hauek irudikatzeko hurrengo grafikoak erabili dira:

- Boxplot-ak: Lau multzotan sailkatuz, algoritmoaren eta EKG erritmoaren arabera, errore metrika bakoitzeko errorean pertzentilak irudikatzeko erabiltzen den tresna da; hau da, 25, 50 (mediana) eta 75-eko pertzentilen irudikapena.

### 9.5.2.2. Emaitza orokorrak

Hortaz, algoritmoek seinaleen sailkapen zuzena egiteko gaitasun emaitzak hurrengoak dira:

SE	Pr 25 (%)	Mediana (%)	Pr 75 (%)
Gold standard	82,81	87,5	90,63
Wavedet PR	78,12	81,25	87,5
SWT PR	71,88	78,12	81,25

Taula 8: Sentikortasun taula

SP	Pr 25 (%)	Mediana (%)	Pr 75 (%)
Gold standard	63,33	68,97	72,41
Wavedet PR	65,52	70	72,87
SWT PR	60	64,43	70

Taula 9: Espezifikotasun taula

Ikus daitekeen moduan Wavedet-ak sailkapen hobeia egiten du. Atal honetan *gold standard*-ekiko errorea ez da garrantzitsua QRS markaketa baizik. Beraz ondorioztatu daiteke Wavedet algortimoaren markaketa G.W. Skejeflo eta bere kideen artikuluan aipatutako markaketa baino hobeagoa dela PR/PEA sailkapena gauzatzeko.

## 10. Plangintza

